

→ Nº①

→ Deialdia

Ikerketa-Artistiko  
Programa

→ Convocatoria

Programa de  
Investigación Artística

KUON  
PALMA

Desplazamientos  
Desplazamenduak

BITAMINE (Irun, Euskadi) — CASA PLANAS (Palma, Mallorca)

'25

BITA  
MINE.



CASA  
PLA  
NAS

## Kontuan hartu beharrekoak!

Egutegia: 2025eko urtarrila-azaroa

Zenbatekoa: 2.400 € ordainsariak + egonaldia + argitalpena

Hautagaitza-aurkezpena: 2024ko irailaren 2ra arte (00:00 h)

# DESPLAZAMENDUAK / DESPLAZAMIENTOS

## Arte-ikerketarako programa

### BITAMINE - CASA PLANAS

Bitamine, “Ikerketa artistiko, kultural eta sozialerako gela mugan”, Irunen (Euskadin) duena egoitza, Palmako Casa Planas izeneko Irudi garaikidearen ikerketa-zentroarekin lankidetzen, Euskadin bizi diren ikertzaileentzako beka-programa bat sustatzen du.

Arte-ikerketarako programa horren helburua turismoaren eraginaren inguruko hausnarketa egiten duten proiektuak garatzea eta sortzea da, gizartea eta kultura ardatz.

Turismoaren historiaren nazioarteko artxiboaren aktibazioa du abiapuntu ikerketak (Planas Archive) [informazio gehiago](#).

### Lehenengo edizioari buruzko sarrerako testua.

Bitamine-k eta Casa Planas-ek, kanporako proiekzioan eta nazio-mailako konexio berrietan datzan estrategiaren bidez, 2022an ekin zioten ikerketa eta sormen garaikidea sustatzeko beren aliantzari. Bi erakundeok eztabaida eta pentsamendu kritikorako eremuak sortzea dute xede, desplazamenduen inguruko ikerketa modu berriak sortzearen, beti ere ardura, errespetua eta zaintza aintzat hartuta, karaktere ekosozial eta dekolonial bati eutsita.

Arte-ikerketarako proiektuei harrera egiten dien deialdi ireki hau Euskadin bizi diren eta bertan lan egiten duten artista, ikertzaile, komisario eta abarrei dago zuzenduta, haien diziplina eta ikerketa-esparrua edozein dela ere.

DESPLAZAMIENTOS/DESPLAZAMENDUAK proiektuak ikerketa Palmako Casa Planas-en egoitzan aktibatzeko aukera eskaintzen du, hilabeteko egonaldi batean (2025eko urtarrilean), gainerako ikerketa Euskadin garatuta hurrengo hilabeteetan (otsailean eta martxoan). Artistak beharrezkotzat joko balu, Bitamine-k Bidasoako eskualdean eskaintzen duen egonaldiaz gozatu ahalko luke.

Azkenik, jarduera-egutegi bat antolatuko da lankidetzen diharduten erakundeekin batera, zeinetan artistak ikerketaren emaitzak aurkeztuko baititu COSTA Nazioarteko Batzarrean (Turismo eta Kultura Jasangarriaren Behatokia), Casa Planas-ek Palman 2025eko urrian

antolatuko duena (informazio gehiago: <http://casaplanas.org/costa/>). Halaber, Euskadin aurkezpen publikoko jarduerak gauzatuko dira. Horrek guztiak artistaren karreraren garapenean eta arte-ikerketa prozesuan eragin positiboa izango duen esperientzia bat eskainiko duelakoan gauude.

## 1. ARRAZOIA ETA HELBURUA

- 1.1. Espainiako autonomia-erkidegoen arteko kultura-harreman berriak sortzeko eta euskal arte garaikidearen sektorea sustatzeko helburuarekin, arte-ikerketarako beka baten deialdia egiten da, arte-ikerketa eta -ekoizpenerako proiektu bat garatze eta gauzatze aldera.
- 1.2. Programa honen bidez, arte-ikerketa eta -ekoizpena sustatu nahi da, sortzaileen sustapena sendotu, eta artisten mugikortasuna indartu.
- 1.3 Desplazamenduek, migrazioak, turismoak eta bidaiek eragiten dituzten eraldaketa sozialei buruzko ikerketa teoriko eta artistikoa garatu.
- 1.4 Proiektuaren emaitza argitalpen inprimatu bat eta hainbat fasetako aurkezpen publiko bat izango da, bai Euskadin, bai Balear uharteetan.

## 2. GAUZATZEKO EPEA

Lan-prozesua fasetan garatuko da:

### Egutegia

Hautagaitza-aurkezpena: 2024ko irailaren 2ra arte

Ebazpena: 2024ko urriaren amaiera

Lehenengo fasea:

Urtarrilak 13 - otsailak 7. Aurrez aurreko egonaldia Casa Planas-en (Palma, Balear uharteak).

Bigarren fasea:

Otsailean eta martxoan, ikerketa-lana Euskadin izango da, aurrez aurreko / sareko jarraipenarekin. Behar izanez gero, parte-hartzaleak egonaldi bat egin ahal izango du Bitamine-n.

Martxoaren amaiera: proiektuaren barne-aurkezpena, Casa Planas-eko Proiektu-zuzendariaaren parte-hartzearekin (Euskadin).

Hirugarren fasea:

2025eko apiriletik ekainera arte: argitalpenaren/entseguaren ekoizpena.

Laugarren fasea:

2025eko urria: emaitzak COSTA Batzarrean aurkeztuko dira (Mallorkan).

Bosgarren fasea:

2025eko iraila-azaroa: emaitzak Euskadin aurkezteko aukera.

### **3. ONURADUNAK**

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden pertsonak izan daitezke programa honen onuradunak, adin-mugarik gabe, eta Casa Planas-eko argazki-artxiboa (Planas Archive) arte-ikerketarako eta -ekoizpenerako proiektu bat garatu nahi izan behar dute.

3.2. Eskatzaileek arte-trebakuntza eta/edo eskarmentu artistikoa eta/edo ikerketa-eskarmentua izan behar dute.

3.3. Eskaera bakarra aurkez daiteke titular eta deialdi bakoitzeko.

3.4. Aipatutako baldintzen muga bakarrak indarrean dauden legeek ezarritakoak dira.

3.5. Laguntzaren onuradun den proposamena talde batek aurkeztu badu, programan parte hartzeko aukera talde horretako pertsona bakar bati emango zaio.

### **4. ZENBATEKOA ETA BESTE BALIABIDE BATZUK**

Laguntza osoa eskainiko da, hauek barne:

- Hegazkin-txartelak, bai 2025eko urtarrileko egonaldirako, bai 2025eko urriko batzarrerako.
- Ostatua Casa Planas-eko Dormitorian.
- Mantenua.
- Ordainsariak, guztira: 2.400 €.
- Bi zatitan fakturatuko da: 800 euro (% 2ko atxikipena PFEZari dagokionez) Palmako egonaldiaren ordainsari moduan, eta 1.600 euro garbi (zergak kanpo) faktura jasotakoan, Euskadin egindako lanaren ordainsari moduan.
- Ekoizpen- eta harreman-baliabideak (ahal bezain bestekoak) Bitamine-ren eta Casa Planas-en eskuistik egonaldietan zehar.
- Komisarioaren laguntza lan-prozesu osoan eta egonaldian zehar.
- ISBN zenbakidun argitalpen bat kaleratuko da, eta 10 ale entregatuko dira.

### **5. ESKAERA-AURKEZPENA ETA EMAITZEN JAKINARAZPENA**

5.1. Eskaerak deialdi hau argitaratzen den unetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, **2024ko irailaren 2ra arte (23:59 h UTC+1)**. Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, ez da hautagairik onartuko.

5.2. Eskaera-aurkezpena Internet bidez izango da, Bitamine-ren webgunean eskuragarri dagoen eskaera-inprimakia beteta: [www.bitamine.net](http://www.bitamine.net) (Deialdiak atala).

5.3. Proposamena urriaren amaieran hautatuko da.

5.4. Onuradunaren izena Bitamine-ren eta Casa Planas-en webguneetan emango da aditzera. Zuzenean jarriko gara harekin harremanetan emate-prozesua gauzatzeko, bekaren onarpen-dokumentua sinatuta.

5.5. Prozedura honekin erlazionatutako konsultak [enter@bitamine.net](mailto:enter@bitamine.net) helbide elektronikora bidali beharko dira.

## 6. BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

6.1. Eskaera egiteko, [www.bitamine.net](http://www.bitamine.net) webgunean eskuragarri dagoen izen-estate inprimakia bete beharko da, honako dokumentazio hau erantsita:

6.1.a. Curriculum vitaea (5.000 karaktere gehienez), egindako azken lanen webgune, irudi, bideo eta abarretarako erreferentziekin.

6.1.b Aurkeztutako proiektuaren azalpen-testua (800 karaktere gehienez) eta biografia labur bat (800 karaktere). Testuok euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon behar dute, eta komunikazio publikorako erabiliko dira, azkenean proiektua hautatu egiten bada ere.

### 6.1.c. PROIEKTUA

- Proiektuaren izenburua eta azalpen labur bat.
- Azterlanari buruzko eskamentua (urrekariak, aldez aurreko ezagutzak, etab.).
- “Desplazamenduekin” lotutako aztergaiaren aurkezpena.
- Casa Planas-en erabiliko diren lan-metodologiak: artxiboan zer bilatu nahi den edo nola aktibatu nahi den artxiboa. Planas Archive informazio gehiago
- Lan-metodologia (harremanak/soziala). Adibidez: elkarrizketak, taldeko dinamika, lantaldea; hau da, bitartekaritza horrek nola erantzuten dien proiektuaren helburuei.
- Aurreikusitako egutegia eta lan-faseak.
- Beharrak.

6.1.e. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da eskaera.

6.2. Hautatutako eskatzaileak dokumentazio hau eman beharko du:

- 6.2.a. Nortasun-agiriaren kopia (NANa edo pasaporte).
- 6.2.b. Banku-datuak, banku-kontuaren nazioarteko kodea (IBANa) barne, diru-laguntza bertan sartu ahal izateko.
- 6.2.c. Erroldatze-ziurtagiria.
- 6.2.d. Egonaldiaren onarpen-konpromisoa, behar bezala beteta eta sinatuta.

## **7. HAUTAPEN-PROZEDURA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK**

7.1. Beka hau emateko, aldiberekotasun lehiakorren erregimena aplikatuko da, objektibotasunaren, gardentasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioei jarraikiz.

7.2. Deialdi hau Balorazio-batzorde batek ebatzik du, zeinaren buru Bitamine-ko taldea, Casa Planas-eko taldea eta izendatzen den artista, kultura-kudeatzaile edo komisario bat izango baitira.

7.3. Batzordeak egiten duen hautapena apelaezina izango da, eta hura izango da oinarri hauetan aurreikusi ez den egoera oro ebazteko arduraduna.

7.4. Diru-laguntzaren onuradun hautatua izateko, eskatzaileek balorazio-irizpide hauen araberako puntuazio altuena lortu behar dute: a) aurkeztutako proiektua (% 50); b) eskatzailearen curriculuma edo eskarmentua (% 25); c) proiektuak garatzen den baliabide eta testuinguruarekiko duen moldagarritasuna eta egokitasuna (% 15); eta d) eskatzailearen esperientzia bitartekaritza sozialaren arloan (% 10).

7.5. Batzordeak hiru finalista elkarriketatu ahal izango ditu gehienez, ebaluazio-irizpideei buruzko 7.4. puntuko d) atala baloratu ahal izateko.

7.6. Batzordeak esleitu gabekotzat jo ahal izango du deialdia.

## **8. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**

8.1. Onuradunak bere eskaeran aurkeztutako lan-egutegian aurreikusitako epeetan proiektua garatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta egonaldia amaitutakoan memoria bat entregatzeko ere.

8.2. Onuradurak Bitamine-ren eta Casa Planas-en instalazioak egokitasunez erabiltzeko eta esleitzten zaizkion lan-eremuak arte-ekoizpenerako eremu gisa esklusiboki erabiltzeko

konpromisoa hartzen du. Hortaz, kango geratzen da haien biltegi, gordailu edo etxebizitza gisa erabiltzeko aukera.

8.3. Asegurua. Egonaldiak ez du inongo asegururik barne hartzen. Egonaldiaren onuradunak CCCPko egonaldiaren iraupen osorako osasun-aseguru bat edo beharrezkotzat jotzen duen aseguru bat kontratatzea komeni da.

8.4. Projektua programaren baitan garatu dela aipatu beharko du onuradunak proiektuaren komunikazioetan, eta Bitamine-ren, Casa Planas-en eta lankidetzan diharduten erakundeen logotipoak erantsi beharko ditu.

8.5. Egonaldiaren programarekin eta haren jarduerekin lotuta egokitzat jotzen den banaketa edo argitalpen orotan, bere izena aipatzeko, lana grafikoki errepruduzitzeko eta prozesuaren dokumentazioa azaltzeko baimena ematen du onuradunak.

8.6. Onuradunak ezarritako arauak gorde beharko ditu, erakundeek proposatutako ordutegietara eta dinamiketara egokituta. Horrez gain, gizalegezko jokabidea izan beharko du, eta instalazioak eta eremu komunak errespetatu beharko ditu.

8.7. Egonaldian zehar, onuradunak erakundeen banaketa-, ekoizpen- eta bestelako jardueren eremuetarako adostutako programazioa beteko du, eta behar bezala errespetatuko ditu ordutegiak, epeak eta hautatutako artistarekin aldez aurretik adostutako ekoizpenak.

8.8. Argitalpen inprimatua behar bezala eta legeari jarraikiz zabaltzeko eta banatzeko, onuradunak kontratu bat sinatuko du bekaren entitate sustatzaleekin, zeinaren bidez argitalpenaren jabetza intelektualaren eskubideak lagatuko baititu. Argitalpen inprimatu % 10 jasoko du hizkuntza bakoitzean.

## **9. BITAMINE-REN ETA CASA PLANAS-EN KONPROMISOAK**

9.1. Hitzematen dute 2.400 € garbi ordainduko dituztela guztira ordainsari gisa.

9.2. Onuradunari ahal bezainbeste lagunduko zaio baliabideak eta materialak bilatzen, bai eta egonaldian zehar ikerketa-proiektua prestatu eta garatu bitartean sortzen diren beharrak asebetetzen ere.

9.3. Onuradunaren proiektua behar bezala garatzeko lagunza eskainiko dute, eta ahalik eta informazio eta baliabide gehien jarriko dituzte haren esku, beti ere aurrekontu- eta langile-mugak kontuan hartuta.

9.4. Hautatutako pertsona helmugako hiriko arte-sarean sartuko dutela hitzematen dute, hautatutako pertsonarekin adostuta topaketa- eta jarduera-agenda bat antolatuta.

9.5 Casa Planas-ek Desplazamientos/Desplazamenduak ikerketa-proiektuari lotutako Planas Archive-ko materiala erabiltzeko eta eraldatzeko eskubideak emango ditu.

9.6 Proiektuaren ISBN zenbakidun argitalpen bat kaleratuko da.

## **10. DATU-BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoa, ematen diren datu pertsonalak Desplazamientos/Desplazamenduak proiektuaren artxiboa gehituko dira eta tratatu egingo dira, kudeaketa-helburuetarako. Datuok atzitzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta haien tratamenduari aurre egiteko eskubideak indarrean dauden legeek ezartzen dituzten baldintzaapean gauza daitezke.

## **11. ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA**

11.1. Lehen ordainketa (800 €) beka onartzeko kontrata sinatutakoan egingo da. Bigarren ordainketa (800 €), bigarren fasearen hasieran, eta gainerako 800 €-ak, egonaldiaren emaitzak entregatu ondoren.

11.2. Ordainsarien ordainketei dagozkien atxikipen fiskalak aplikatuko zaizkie. Ordainketa hori onuradunaren banku-konturako transferentzia bidez egingo da, dagokion faktura aurkeztu ondoren.

11.3. Itzuli eta maketatu beharreko materiala bidaltzeko epea 2025eko ekainaren 30a izango da.

## **12. EZ-BETETZEA ETA AINTZAT HARTU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK**

12.1. Oinarri hauetan xedatutakoa bete ezean, egonaldia eta ordainketa eten litzke, eta diru-laguntza itzultzea ere eska liteke, Balorazio-batzordeak beharrezkotzat joko balu.

12.2. Antolakuntzak oinarriok aldatzeko edo haietan xedatu ez diren ekimenak hartzeko eskubidea erreserbatzen du, baldin eta proiektuaren arrakasta lortzeko zuzeneko eragina badute. Oinarrien interpretazioa Balorazio-batzordeko kideen mende egongo da esklusiboki.

12.3. Programa honetan parte hartuz gero, oinarriak guztiz onartutakotzat joko dira.

## A tener en cuenta!

Calendario: Enero - Noviembre 2025

Dotación: 2400€ Honorarios + Residencia + Publicación

Entrega de candidaturas hasta el 2 de septiembre de 2024 ( 24:00h)

# Programa de investigación artística BITAMINE - CASA PLANAS

Bitamine, Habitación para la investigación artística, cultural y social en la frontera, situada en Irun-Euskadi, en asociación con Casa Planas, Centro de investigación de la imagen contemporánea situado en Palma de Mallorca, impulsan un programa de becas dirigido a investigadoras/es residentes en Euskadi.

Este programa de investigación artística tiene como objetivo desarrollar y producir proyectos que aporten una reflexión sobre el impacto del turismo en términos socioculturales.

La investigación parte de la activación del Archivo Internacional sobre la historia del turismo (Planas Archive) [más info.](#)

## Texto introductorio sobre la primera edición.

Bitamine y Casa Planas, a través de su estrategia de proyección exterior y nuevas conectividades del territorio nacional comenzaron su alianza en 2022 para el fomento de la investigación y creación contemporánea. Ambas organizaciones tienen la misión de generar espacios de debate y pensamiento crítico para repensar nuevas formas de estudio sobre los desplazamientos, de una forma más responsable, desde el respeto, el cuidado con un marcado carácter ecosocial y decolonial.

Esta convocatoria abierta a proyectos de investigación artística está dirigida a artistas, investigadorxs, comisarixs, etc que residen y trabajan en Euskadi, sea cual sea su disciplina y ámbito de estudio.

*DESPLAZAMIENTOS / DESPLAZAMENDUAK* ofrece la posibilidad de activar la investigación en la sede de Casa Planas en Palma de Mallorca en un formato de residencia de un mes durante el mes de enero de 2025 y desarrollar el resto de la investigación en Euskadi durante los meses siguientes (febrero y marzo), contando con la residencia de Bitamine en la comarca del Bidasoa si el/la artista lo considerara necesario.

Finalmente, se organiza un calendario de actividades conjuntamente con las instituciones colaboradoras en el que el/la artista presentará los resultados de su investigación en el marco del Congreso Internacional COSTA (Observatorio de Turismo y Cultura Sostenible), organizado

por Casa Planas en Palma de Mallorca en octubre de 2025 (Más info: <http://casaplanas.org/costa/> ), así como actividades de presentación pública en Euskadi; lo que ofrece una experiencia que deseamos contribuya positivamente al desarrollo de su carrera y proceso de investigación artístico.

## **1. OBJETO Y FINALIDAD**

1.1. Con el objetivo de trazar nuevas relaciones culturales entre diferentes comunidades autónomas del territorio español e impulsar el sector vinculado al arte contemporáneo vasco, se convoca una beca de investigación artística para el desarrollo y ejecución de un proyecto de investigación y producción artística.

1.2. Con este programa se pretende incentivar la investigación y la producción artística, contribuir a la promoción de los y las creadores/as, y promover la movilidad de artistas.

1.3 Desarrollar una investigación teórica/artística sobre las transformaciones sociales que se subyace de los desplazamientos, la migración, el turismo y el viaje.

1.4 El proyecto se materializará en una publicación impresa y en varias fases de presentación pública en el País Vasco y en Baleares.

## **2. PLAZO DE EJECUCIÓN**

El proceso de trabajo se desarrollará en varias fases:

### **Calendario**

Entrega de candidaturas hasta el 2 de septiembre de 2024

Resolución: Finales de octubre de 2024

Primera fase:

13 enero - 7 de febrero - Residencia presencial en Casa Planas ( Palma. Mallorca. Islas Baleares )

Segunda fase:

Durante los meses de febrero y marzo se materializará el trabajo de investigación en Euskadi con un seguimiento presencial/online. Si es necesario, la persona participante contará con una residencia en Bitamine.

-A final de marzo: Presentación interna del proyecto con la participación de la Directora de proyectos de Casa Planas en Euskadi.

Tercera fase:

-De abril a junio 2025: Producción de la publicación/ensayo.

Cuarta fase:

-Octubre de 2025. Se presentarán los resultados en el Congreso COSTA en Mallorca

Quinta fase:

-Septiembre - noviembre de 2025 - Posibilidad de presentación de resultados en Euskadi

### **3. PERSONAS BENEFICIARIAS**

3.1. Podrán ser beneficiarias de este programa todas aquellas personas empadronadas en la Comunidad Autónoma Vasca, sin límite de edad, que deseen desarrollar un proyecto de investigación y producción artística en el archivo fotográfico de Casa Planas ( Planas Archive.)

3.2. Las solicitantes deberán tener formación y/o trayectoria artística y/o de investigación.

3.3. Podrá presentarse una única solicitud por titular y convocatoria.

3.4. Las únicas limitaciones a estas condiciones son las impuestas por la legalidad vigente.

3.5. En el caso de que la propuesta beneficiaria de la ayuda sea presentada por un colectivo, la participación en el programa se concederá a una sola persona miembro del mismo.

### **4. DOTACIÓN ECONÓMICA Y OTROS RECURSOS**

Se ofrece una ayuda integral que se compone de:

- Billetes de avión, para la estadía en enero 2025 y para el congreso en octubre 2025
- Alojamiento en el Dormitori de Casa Planas
- Manutención
- Honorario totales: 2400€

Se facturará en dos partes: 800 euros (Tendrá un retención del 2% de IRPF) en concepto de honorarios correspondientes a la estancia en Palma de Mallorca, y 1600 euros netos (impuestos aparte) de honorarios a contrafactura correspondientes al trabajo en Euskadi.

- Recursos de producción y relacionales en la medida de las posibilidades, de Bitamine y Casa Planas durante las diferentes estadías,
- Acompañamiento comisarial durante todo el proceso de trabajo y durante la estancia,
- Se producirá una publicación con ISBN y se entregarán 10 unidades.

## **5. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y NOTIFICACIÓN DE CONCESIONES**

5.1. Las solicitudes podrán presentarse a partir de la publicación de esta convocatoria hasta el **2 de septiembre de 2024 23:59h UTC +1**. Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes no se aceptará ninguna candidatura.

5.2. La presentación de solicitudes se realizará online rellenando el formulario de solicitud disponible en el sitio web de Bitamine: [www.bitamine.net](http://www.bitamine.net) en el apartado de convocatorias.

5.3. La selección de la propuesta se resolverá a finales del mes de octubre.

5.4. El nombre de la persona beneficiaria será publicado en el sitio web de Bitamine y Casa Planas. Esta será contactada directamente para formalizar la concesión mediante la firma de un documento de aceptación de la beca.

5.5. Las consultas relacionadas con este procedimiento serán atendidas a través del correo electrónico [enter@bitamine.net](mailto:enter@bitamine.net).

## **6. DOCUMENTACIÓN REQUERIDA**

6.1. Para realizar la solicitud, se requerirá cumplimentar el formulario de inscripción online disponible en el sitio web [www.bitamine.net](http://www.bitamine.net) adjuntando la siguiente documentación:

6.1.a. Curriculum vitae (5.000 caracteres máximo), con referencias a sitios web, imágenes, vídeos, etc. de los trabajos más recientes.

6.1.b Texto descriptivo del proyecto presentado (máximo 800 caracteres) y una breve biografía (800 caracteres). Estos textos deberán estar redactados en euskera y castellano y serán utilizados para la comunicación pública en caso de que el proyecto resulte finalmente seleccionado.

### **6.1.c. PROYECTO**

- Título y breve descripción del proyecto.
- Trayectoria sobre el campo de estudio ( antecedentes, conocimientos previos,etc.)
- Presentación de la temática-objeto de estudio vinculado a los “Desplazamientos”.
- Metodologías de trabajo en Casa Planas: Qué se desea buscar el archivo o cómo se pretende activar el archivo. Planas Archive [más info.](#)
- Metodología de trabajo relacional / social. (Por ejemplo: Entrevistas, dinámica grupal, colectivo de trabajo, es decir, justificación de cómo esta mediación responde a los objetivos del proyecto).
- Calendario previsto y fases de trabajo
- Necesidades

6.1.e. La solicitud se podrá presentar en cualquiera de los idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

6.2. La persona solicitante que resulte seleccionada deberá aportar la siguiente documentación:

6.2.a. Copia del documento de identidad (DNI o pasaporte).

6.2.b. Datos bancarios (incluyendo el código internacional de cuenta bancaria IBAN) para el ingreso efectivo de la ayuda.

6.2.c. Certificado de empadronamiento.

6.2.d. Compromiso de aceptación de la residencia debidamente cumplimentado y firmado.

## **7. PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y CRITERIOS DE VALORACIÓN**

7.1. La concesión de esta beca se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de acuerdo con los principios de objetividad, transparencia, igualdad y no discriminación.

7.2. Esta convocatoria será resuelta por una Comisión de Valoración presidida por el equipo de Bitamine, el equipo de Casa Planas y una persona artista, gestor/a cultural o comisario/a que se designe.

7.3. La elección de la Comisión será inapelable y a ella corresponderá resolver cualquier circunstancia no prevista en estas bases.

7.4. Serán declarados beneficiarias de la ayuda aquellas solicitantes que obtengan mayor puntuación conforme a los siguientes criterios de valoración: a) el proyecto presentado (50%); b) el currículo o trayectoria de la solicitante (25%); c) Adecuación e idoneidad del proyecto a los recursos y contexto en que se desarrolla (15%); y d) Experiencia de mediación social de la persona solicitante (10%).

7.5. La Comisión podrá entrevistar hasta a un máximo de tres finalistas con el fin de evaluar el apartado d) del punto 7.4 referente a los criterios de evaluación.

7.6. La Comisión podrá declarar desierta la convocatoria.

## **8. OBLIGACIONES DE LA PERSONA BENEFICIARIA**

8.1. La persona beneficiaria se compromete a desarrollar su proyecto en los plazos previstos en el calendario de trabajo presentado en sus respectivas solicitudes y a entregar una memoria justificativa al finalizar su estancia.

8.2. La persona beneficiaria se compromete, en su caso, a hacer un buen uso de las instalaciones de Bitamine y Casa Planas y destinar los espacios de trabajo que se le asignen exclusivamente como espacios de producción artística. Quedan, por lo tanto, excluido su uso como almacenes, depósitos o vivienda.

8.3. Seguro. La residencia no incluye ningún tipo de seguro. Es aconsejable que la persona residente tramite personalmente un seguro médico o el seguro que considere adecuado por el periodo de residencia en CCCP.

8.4. La persona beneficiaria deberá mencionar en las comunicaciones del proyecto que éste ha sido desarrollado en el marco del programa incluyendo los logos de Bitamine y Casa Planas y las organizaciones colaboradoras.

8.5. La persona beneficiaria autoriza que se cite su nombre, así como la reproducción gráfica de su obra y documentación del proceso, en cualquier tipo de difusión o publicación que se considere oportuno hacer en relación con el programa de la residencia y sus actividades.

8.6. La persona beneficiaria deberá atenerse a las normas dispuestas, adaptándose a los horarios y dinámicas de trabajo propuestas por las organizaciones , además de mantener un comportamiento cívico y respetando las instalaciones y espacios comunes.

8.7. La persona beneficiaria cumplirá con la programación acordada con los espacios de difusión, producción y cualquier otra actividad durante la estancia en las organizaciones cumpliendo debidamente con los horarios, plazos y producciones previamente concertadas en común acuerdo con el/la artista seleccionado/a.

8.8. Para la correcta difusión legal y distribución de la publicación impresa, la persona beneficiaria firmará un contrato con las entidades promotoras de la beca en el que cede los derechos de propiedad intelectual de la publicación. Y recibirá un 10% de las publicaciones impresas en cada lengua.

## **9. COMPROMISOS DE BITAMINE Y CASA PLANAS**

9.1. Se comprometen al pago de honorarios por un importe total de 2400€ netos.

9.2. Se asistirá en la medida que sea posible a la persona beneficiaria en la búsqueda de recursos, materiales y resolución de todo tipo de necesidades que surjan a la hora de preparar el proyecto de investigación y de desarrollarlo durante el periodo de la estancia.

9.3. Se contribuirá al desarrollo óptimo del proyecto de la persona beneficiaria poniendo a disposición de la misma cuanta información y recursos le sea posible dentro de sus limitaciones presupuestarias y de personal.

9.4. Se comprometen a insertar a la persona seleccionada en el entramado artístico local en la ciudad de destino organizando una agenda de encuentros y actividades de común acuerdo con la persona seleccionada.

9.5 Casa Planas cederá los derechos de uso y transformación de material del Planas Archive vinculado al proyecto de investigación de Desplazamientos.

9.6 Se producirá una publicación con ISBN del proyecto

## **10. INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS**

De acuerdo con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, los datos personales que se aporten se incorporarán y se tratarán al fichero de Desplazamientos/Desplazamenduak con el fin de llevar la gestión. Se puede ejercer el derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el tratamiento de estos datos según las condiciones que prevé la legislación vigente.

## **11. PAGO Y JUSTIFICACIÓN**

11.1. Un primer pago 800€ que se efectuará después de la firma del contrato con la aceptación de la beca y el segundo pago de 800€ al inicio de la segunda fase y los 800€ restantes se abonará trás la entrega de los resultados de la residencia.

11.2. El pago de honorarios se realizará aplicando las retenciones fiscales correspondientes. Dicha retribución se realizará mediante transferencia a la cuenta bancaria de la persona beneficiaria y una vez presentada su correspondiente factura.

11.3. Se define como fecha límite para enviar el material a traducir y maquetar el 30 de junio de 2025.

## **12. INCUMPLIMIENTO Y OTRAS CONSIDERACIONES**

12.1. El incumplimiento de lo establecido en estas bases podría suponer la interrupción de la estancia y del pago, así como, el reintegro de la ayuda si el Comité de Valoración lo considerara pertinente.

12.2. La organización se reserva el derecho a realizar modificaciones o tomar iniciativas no reguladas en estas bases, siempre que supongan mejoras que afecten directamente al éxito del proyecto. La interpretación de las bases dependerá exclusivamente de los miembros de la Comisión de Valoración.

12.3. La participación en este programa supone la plena aceptación de estas bases.



CINimg004.gif  
Imagen GIF - 5,3 MB

Información

Creación 18 de octubre de 2023  
Modificación 15 de julio de 2018  
Última apertura 15 jul 2016

Etiquetas

Añadir...



hotelcanaima\_2025.  
Imagen TIFF - 50,6 MB

Información

Creación 19 de octubre de 2023, 9:  
Modificación 22 de junio de 2017, 13:  
Última apertura 22 jun 2017 13:

Etiquetas

Añadir...



fraga y planas.jpeg  
Imagen JPEG - 427 KB

Información

Creación 19 de octubre de 2023, 12:  
Modificación 29 jun 2022 15:  
Última apertura 29 jun 2022 15:

Etiquetas

Añadir...

BITA  
MINE.

CASA  
PLA  
NAS  
10